

Hockey partidak Belabietan

Partidu «azkarra eta bizia» izan zen ▶ 6



2004 kultur urtearen balantze oparoa egin du Tolosako Udalak

LIBURUTEGIA ▶ Haur

Liburutegiak bazkide asko eta 11.000 mailegu izan ditu

ANTZERKIA ▶ Kalitateak ez

du ikusle kopurua handia izatea bermatzen

AZPIEGITURAK ▶ Bi urtetan

gabeziei irtenbidea emango zaie hiru areto berrirekin ▶ 2



Xabier Iturrioz apaiza gaztea Villabonan ari da; laster Adunan hasiko da

ALEGIA ▶ Xabier Iturrioz apaiza gaztea elkarriketatu du Hitzak. «Gizarteko gatazkek» gure baloreak «zapaltzen» dituztela adierazi du. Sendotzan eta katekesian ari da lanean Villabonan eta datorren astean Adunan hasiko da. NOELIA LATABURU ▶ 5

IRURA ▶

Hildako bat izan da kamioi istripuz

Kamioia irauli egin zen bihurgunean ▶ 4

LEITZA ▶

Ateka beltzan gizarte zentrua egitearen alde

Inkestan %36ek hori adierazi dute ▶ 7

ZABALA
KAFETAK
ONDO PASA INAUTERIETAN!

Nafarroa etorbidea, 2 TOLOSA
Nagusi enparantza, 2 ORDIZIA
Tlf.: 943 65 47 95
Tlf.: 943 88 29 88

"TROIKA-TOLOSAKO INAUTERIAK" (3)
ET INCARNATUS GANBARA ORKESTRA
FESTA LURIKOAREN EROMEN LIRIKOA
et incarnatus
CO. PERINA JARDUNA SALDA

KULTURA ▶

Kultur urte oparoa, orokorrean

Haur Liburutegiak bazkide asko ditu; kalitate oneko lanek ez dute ikusle kopurua handia izatea bermatzen

IRATXE ETXEBESTE

Haur Liburutegia «osasunez bete-betea» dagoen zerbitzua dela uste dute Tolosako Udaleko kultur arduradunek. Izan ere, beste liburutegi batzuk ere biltzen dituen sarean sartu denetik askotariko ekintzak antolatzen ditu herriko haur eta gaztetxoentzat. Iaz, esaterako, asko eta asko izan ziren Tolosako Haur Liburutegiak eskaintzen dituen maileguez profiritatu zirenak. Euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta beste hainbat hizkuntzatan idatzitako liburuen mailegua 11.000 ale baino gehiagokoa izan zen eta bideoa, berriz, 7.000 ingurukoa. Egunero-egunero 86 CD, DVD eta liburu hartu zituzten erabiltzaileek maileguan iaz.

1.490 bazkide lortu zituzten 2004an Haur Liburutegiak, eta mailegu zerbitzuaren erabiltzaile kopurua 9.731ra heldu zen urte bukaeran. Eskualdeko haurrei, ikastetxei eta Kultur Etxeko ikastaroetako irakasleei mailegu zerbitzua emateaz gain, ordea, bestelako ekintzak ere antolatu ditu urtean zehar: ipuin kontalarien saioak, antzerki emanaldiak, ikasleen bisitaldiak, erakusketak, literatur lehiaketak, irakur gidak, ikastaroak eta beste.

Ez dira hain onak Aranburu Liburutegiko datuak. Iaz bazkide egindakoak 122 izan ziren —haurrak, berriz, helduak halako hamar— eta guztira, 2.339 bazkide ditu orain helduen liburutegiak: horietatik, 1.305 emakumezkoak dira, eta gizonezkoak, 934. «Urtero-urtero atera dezakegu ondorio bera: liburutegiko zerbitzuak erabiltzen dituztenak emakumezkoak direla gizonezkoak baino gehiago», dio Udaleko kultur teknikari Jokin Ansorenak.

Aranburu Jauregin egindako erakusketen harira, orokorrean «kalitate onekoak» izan direla esan du Kultur teknikariak, eta aipagarrienetaz jo ditu May Colmenero pintura irakasle tolosarrak eta bere ikasleek jarritakoa, Iñaki Linazasoro tolosar zendu berriaren *Begi-bistan* argazki bilduma eta Miren Gonzalezen *Puzzleak* pintura erakusketak. Bestalde, Aranburuko erakusketak gunean orain arte ziren hezetan arazoak «konpondu» dituztela argitu zuen atzo Tolosako Uda-

leko Kultura eta Jai zinegotzi Andoni Iturzaetak urteko kultur balantzea egiterakoan, eta aurrerantzean erakusketak modu egokian egiteko moduan izango direla adierazi zuen.

Kalitate onak ez du, hala ere, bisitarien kopurua handia izatea bermatzen. Izan ere, udal ordezkariak diote ez dela ikusle kopurua haiek nahi adinako izatera iristen, eta badirudiela «jendeari gero eta gehiago kostatzen zaiola etxetik irteatea». Egoera hori ez da, gainera, erakusketetara bakarrik mugatzen, gaur egun, bestelako kultur ekitaldietan ere ez delako ziurra gutxienezko ikusentzule kopurua biltzea. Horren adibide dira iaz Leidor zinema antzokian eskaini zituzten antzerki ikuskizunak. Sekulako jendetza erakarri zuten batzuk, eta besteetan oso lagun gutxi bildu ziren. Arrakatsuenen artean dira: *Cocidito madrileño* (beteta); *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (2.030 ikusle) eta *Las mujeres de verdad tienen curvas* (810), eta ikusle kopuru eskasa lortu zutenak, berriz: *Bitor Ghez* (92); *Putz vieja alcahueta* (71) eta *Mario por alusion* (22), besteak beste.

Erroka eta egitura berriak

«Esenako ekitaldietarako ez omen gaude oso egoera onean». Halaxe uste du Jokin Ansorenak, baina, hala eta guztiz ere, Udalak «arriskuak har-tzen» segituko duela dio, orain arte «oso ondo atera» zaiolako. Horren lekuko dira Ismael Serranoren eta Los Secretos taldearen kontzertuak. Erroka handi gisa ekarri zituzten antolatzaileek herrira, eta tolosarren aldetik «erantzun bikaina» jaso zuten. «Horrek esan nahi du herritarrek gustu anitz dutela kultur alorrean».

Eskaintzen harira, erroka berriak dituztela iragarri du Iturzaetak: Tolosako Jazz eta Blues Jaialdia egin nahi dute, eta musika elektronikoen inguruko eta Iparraldeko musika eta antzerki emanaldiak bilduko dituen beste bi ere bai. Eta herriko kultur eskaintzak oparoa izaten jarrai dezan, bi urteren buruan «orain egitura aldetik dauden gabeziei irtenbidea emango» zaiela esan dute udal arduradunek. Euskal Herri plazan Txotxongiloen Zen-



Andoni Iturzaeta, Jokin Ansorena eta Angel Alonso, Kultur Etxean, atzo, iazko kultur balantzea egiten. I. E.

ZENBAIT DATU ▶

ARANBURU JAUREGIA

▶ **Erakusketak.** Aipagarrienak. Iñaki Linazasoro argazkilaria tolosarraren *Begi Bistan*, May Colmenero pintore tolosarraren ikasleen erakusketak eta Miren Gonzalezen *Puzzleak* pinturak. **Ikusleak.** 2.735 ikusle izan dira urte osoan.

▶ **Aranburu Liburutegia.** **Liburu mailegua.** 3.972; egunero, batz bestea, 16,35. Hizkuntzaren arabera: euskaraz 414 (%10,42); gaztelaraz 3.534 (%88,97) eta ingelesez 24 (%0,60). **Bideo mailegua.** 599. **DVD mailegua.** 1.108. **CD mailegua.** 455. **Aldizkari mailegua.** 455. **CD ROM mailegua.** 14.

Bazkideak. Iaz egindakoak: 122. Guztira, 2.339 (gizonak 934; emakumezkoak 1.305).

Erabiltzaileak. Urte osoan: 3.666 (gizonak 1.525; emakumezkoak 2.141).

Liburu irakurrienak. Ruiz Zafonen *La sombra del viento*, Brownen *El codigo da Vinci*, Atxagaren *Soinujolearen semea* eta Toti Martinez de Lezearen *La abadesa*.

ARTXIBOA

Udaletxeko kontsultak. 53. **Kanpoko kontsultak.** 71:

13 Internet bidez eta 58 ahoz aho, eskutitzez, telefonoz... **Bisitak.** Ingurumen Eskolako bost talde izan dira: 40 ikasle **Ikerketak.** Fernando Bengoetxea, *Fernando Ametzetarra*, Tolosako industria, Lizartzako, Orexako eta Alegiako historia, langile mugimendua Tolosan...

MUSIKA ESKOLA

Ikasle kopurua. Aurten 403k eman dute izena; iaz 405 ziren: akordeoia (39), pianoa (59), soka (44), haize-egurra (61), haize-metala (40)... **Ekitaldiak.** Kontzertuak eskualdean eta eskualdetik kanpo, Inauterietan, Santa Ageda bezperan...

KULTUR ETXEA

▶ **Kultur tailerrak.** **Matrikulak.** Guztira, 317 (haurrak: 182; helduak 135): antzerkia (10), balleta (156), dantza garaikidea (22), pintura lantzea (9), ehoziriak (14)...

▶ **Haur liburutegia.** **Mailegua.** Guztira, 18.848 (bideoak: 6.960; liburuak euskaraz: 5.949; liburuak gaztelaraz: 5.673; liburuak ingelesez: 5.673). **Erabiltzaileak.** Guztira, 9.674. **Bazkide kopurua.** 1.490 (emakumezkoak: 758;

gizonezkoak 732). **Ekitaldiak.** Haur Liburutegiak askotariko ekintzak antolatu zituen urte osoan zehar: hala nola, Liburuaren Egunaren, Autorik Gabeko Egunaren eta Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan egindakoak; literatur lehiaketak, irakur gidak, ipuin kontalarikak...

▶ **Gelen erabilera.** **Bilerak.** Guztira, 910 bilera egin ziren 2004an Kultur Etxeko getetan: AHT (31), Festa Batzordea (21), Gainditzen (43), Irazki (42), Tolosa Bizirik (48), Txosna Batzordea (32)...

LEIDOR ZINEMA ARETOA

Ikuskizunak. Hamaika kultur saio egin ziren 2004an Leidor aretoan, eta horietako batzuk beste zenbaitek baino jende gehiago biltzea lortu zuten: Ismael Serrano (991), Ruper Ordorika (289), *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (2.030), Takolo, Pirri eta Porrotx (1.093), Los Secretos (899), *Cabaret Latino* (86), Marionetas del pene (86), Ainhoa Arteta (1.109), Oskorri (101), *Mario por alusion* (22)...

ZULOAGA-TXIKI ATERPEA

Erabiltzaileak. Guztira, 912 lagunek bisitatu zuten iaz aterpea; 2002an 1.001 izan ziren, eta 2003an 1.027.

tro Egonkorra sortzeko asmoa du Udalak, eta bertan tamaina erdiko ikuskizunetarako areto bat jarriko lukete. Abastos plazan, berriz, Kafe Antzoki moduko bat jartzea ari dira udal ordezkariak aztertzen, eta horrek ere kultur eskaintza areagotze-

ko aukera emango lukeela irizten dio udal teknikariak.

Leidor zinema antzokiko lanak uztailen hasiko dituzte, bestalde, eta urtebeteren buruan amaituta izango direlakoan dira Ansorena eta Iturzaeta. Eszenatokiaren tamainari eta

akustikaren arazoari irtenbidea emango zaie modu horretara, eta klimatizatua izango da aretoa. Gainera, eserleku ar-teko tartea handituz, «eserleku batzuk galduko ditu, baina, era berean, erosotasunean irabaziko du Leidorrek».

ESTETIKA ▶

ZIBER ILEAPAINDEGIA

Telebista digitala, Internet, ordenagailuentzako jokoak eta bestelako aurrerapen teknikoak, bezeroaren eskura daude Honekin ziber-ileapaindegian

IÑIGO ASENSIO

Teknologia berriei atek ireki eta ileapaindegi kontzeptu berri bat sortu da Tolosan. Santa Maria plazan kokatuta, Honekin ziber-ileapaindegiak bezeroari azken teknologia zebitzuak eskaintzen dizkio.

Bertara iritsi eta txanda itxaron beharra badago, aukera ugari daude denbora hori entretenigarriagoa gerta dadin: telebista digitala, Interneten ibiltzeko aukera, ordenagailuentzako jokoak, DVDak...

Aitor Odriozola Honekin-eko arduradunaren hitzetan «ileapaindegi asko dago, nik ukitu desberdina eman nahi nion, eta emaitza hor dago; inoiz ez da horren entretenigarria izan ileapaindegira joatea. Lehen, gurasoak seme-alabekin borrokan ibiltzen ziren hauek ileapaindegira eramateko, eta orain, gure kasuan, alderantzizkoa da; gazteek maizago etorri nahi dute». Aldaketa nabarmena da beraz, betiko aldizkarietz gain, bezeroak bere posta elektronikoa kontsulta dezake, emailak bidali edota besterik gabe web orrietan informazioa bilatu.

Baina Honekin-ek egungo teknologia aurrerapenekin duen egokitzapena ez da entretenimendura mugatzen. Buruak garbitzeko gunean, lehen kontaktuan, guztiz etzanda jarri eta eserlekuak bizkarrean masaia ematen duen bitartean, buruan ere masajea ematen zaio bezeroari. Kristalezko lurraren azpian ura pasatzen da, errekatxo baten antzeko itxura sortuz eta ingurune ezin erlajanteagoa sortuz.

Ondoren, moztu, orraztu eta bestelako lanak egiteko tokadoreetara pasatzen da bezeroa. Bertan Italian eginiko eserleku ergonomikoak eta italiar kutsuko apainketa daude, lan guztiz profesionala egiteaz gain, estiloz beteriko leku batean bezeroa gustura egon dadin. «Gure ileapaindegiak ez die inongo enbidiarik Milan edo Pariseko ileapaindegiei, estiloari dagokionez puntapuntan gaude» dio Honekin-eko arduradunak. Horrez gain, etengabeko formakuntza ere, benetan zaintzen duten arloa da. «Etegabe ari gara gure formakuntza sakontzen. Londres, Milan, Paris, Madril eta beste zenbait hiritarra joaten



Tokadoreetan, interneta eta jokoak daude bezeroaren eskura. HITZA



Telebista digitalaren bidez, modaren joerak ezagutzen dira. HITZA



Ilea garbitzeko gunea, erlajazio gune ere bihurtu da. HITZA

gara ikastaroak egin edota Loreal eta Revlon bezalako etxe-ek antolatuturiko ikuskizunetan parte hartzera». Horrela, Honekin-en, modaren azken joerak norberaren ilean eramateko aukera dago.

Hala ere, Aitor Odriozolak dioenez «egokiena, joera horiek bezeroaren arabera aplikatzea izaten da. Beti daude joera batzuk, baina ezin zaio bezeroari eramaten dena eramaten delako egin, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharrekoak dira». «Gainera» dio Odriozolak, «ilearen modan aldaketak ez dira arroparen arloan bezain drastikoak izaten, orrazkerak, koloreak eta estiloa orokorrean, poliki-poliki matizatzen joaten da, progresiboagoa da». Dena den, badituzte gustuko joera zehatz batzuk ere. «Orokorrean ileak itxura naturala izan dezan saiatzen gara. Kolore naturalak erabili ondoren, diztiren jokatzen dugu efektua ere naturala izan dadin».

Izenarekin bueltaka

Honekin izenaren atzean historia pertsonala izkutatzen da. Aitor Odriozolaren ama, Kontxi, eta honen bikotea Esteban, Tolosan aski ezagunak diren ileapaintzaileak dira, hainbat urtetan lanean aritu direnak. Odriozolak beren maisu izan diren bi pertsonaia hauek omentzeko asmoz, bi izenen atal bat hartu eta Kon-Este hitza sortu zuen, euskarara itzuliz Honekin izena lortuz.

Aurrerapen teknologikoei hainbeste garrantzia ematen dion ziber-ileapaindegi honetan, bi tresna berri gehituko dituzte epe motzean. Lehena gorputz osoko solarium bat presatzea izango da, bezeroek bertan azala belztu dezaten. Bigarrena berriz, orain arte ezezaguna genuen zerbitzu bat. Programa informatiko baten bidez, bezeroak, berarekin lanean hasi baino lehen, bere ilean estilo ezberdinak ikusteko aukera izango du, kolore eta orrazkera desberdinak probatu eta ondoren gustukoena duena aukeratzeko. Horrela, Maite, Alaitz, Ohiane, Leire eta Aitor berak, bezeroa apainduko dute honek aukeratutakoaren arabera. Bitartean, bezeroak, nahikoa entretenimendu izango du orain arte aipaturiko ziber zerbitzuekin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbolak: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzioz klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Erizaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitizaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M.L. Amaro 9

(Tolosa) 943 67 51 18

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Tolosako Udala euskararen normalizazioa oztopatzen

Tolosako Nafarroa etorbidean burutzen ari diren konponketa batzuen ondorioz, Correos-etako sarrerarako behin behinako aldaketa adierazten zuen oharrarekin topo egin nuen: ohar hau gaztelera hutsez zegoen.

Gure herrian ofizialki bi hizkuntza ditugula eta euskaldunon hizkuntza eskubidea aldarrikatuz, sarrerako oharra euskaraz ere jartzea eskatuaz idatzi batekin zuzendu nintzen Correoseko arduradunarengana.

na. Honek ordea, ohar hori kale horretako haur jolasparkeko obretako arduradunek ezarri zutela adierazi zidan.

Ondorioz, obretako arduradunarengana zuzendu nintzen eta nire kexa adierazi nionean, nire kexa haizeak eramango duenaren irudipenarekin geratu nintzen.

Obretako enpresa honekin lan hitzarmena egin duena Tolosako Udala izanik, gertaera salatu eta irtenbidea eman ziezaidan eskatuz eskutitza bat bidali nuen udaltekera.

Tolosako Udaleko araudiak, Udalarekin hitzartzen duten enpresek bi hizkuntzak bermatu behar dituela dio. Alkate jauna, nora zoaz zerorrek sinaturiko Udal araudia betearazi gabe?

Idatzia igorri genuenetik aste bete pasa da eta oharrak erdara hutsez jarraitzen du.

Jarrera honekin euskaldunon hizkuntza eskubideari parra egiten diozu eta euskararen normalizaziorako bidean oztoto egiten duzu.

Zure eginbeharra den moduan, ordenantza hori betearaziko bazenu ez nuke ibili naizen moduan ibili behar izango. Bukatzeko, ohar publikoak euskaraz ere irakur ditzagun, herri-tarrei egin behar diren salaketak eta kexak bideratzera animatu nahi ditut, gainontzean inoiz ez baikara Euskal Herri Euskaldun batean biziko!

JOSUNE AGIRREZABALA ZUBILLAGA
(EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EN IZENEAN) ▶ TOLOSA

ASTEASU ▶ HEZKUNTZA

Zuhaitz Eguna izango dute bihar ikasleek

Pello Errotako ikasleek ekitaldi ugari dituzte egunotan: zuhaitzak leku-aldatu eta gero, santa eskea eta Inauteri festa

IMANOL GARCIA

Asteasuko Pello Errotako ikasleek Zuhaitz Eguna izango dute bihar. Goizeko 10:00etatik 11:00etara bitartean, Asteasu ibaia eta Opin errekararen arteko udal lurretan zuhaitz batzuen leku-aldatzea egingo da. LH1 eta LH4 arteko ikasleak arituko dira. Hirugarren urtea izango da Ostegun Gizen egunez eginen dutela zuhaitzaren inguruko ekintza hori.

Bestalde, Inauterien inguruko festa egingo dute etzi arratsaldean, 15:30etik aurrera. Eskolatik mozturrotuta jaitziko dira pilotalekuraino eta han maila ezberdinetako ikasleek antzerkitxoak egingo dituzte. Erdi Aroa izango da ardatza eta denetarik antzeztuko da: bufoiak, errotariak, azoka, jauntxoaren arteko guduak, titriteroak... Ondoren, guraso elkarteak prestatuta, ikasleek merienda izango dute prest.

Egun berean, baina goizez, santa eskean aterako dira ikasle zaharrenak baserriz baserri eta 12:30ak inguruan eskolan amaituko dute ibilaldia, bertan kanta bat edo beste abestuz.

Aipatzekoa da Eskolak Pello Errotaren kabitik izeneko aldi-zikariaren azken alea argitaratu berri duela. Ikasleek parte hartzen dute aldi-zikaria egiten eta gai asko jorratzen dira: Ipu-pomamua, Iruñe Aramendiri elkarrizketa, ipuinak...

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Alkiza. Txaleta lursailarekin.
Kapritxoz. Informazio pertsonala.

Etxesagasti. Informazioa: 943 69 68 56 telefonoa.

Andoain. Gazteentzako ezin hobea.

Kapritxoz zaharberritua. 70 m².

Eguzkitsua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 85 m². Egonela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera.

Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko.

33.500.000 pezeta (negoziagarriak).

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. Apartamentua erdialdean.

Guztiz zaharberritua. Eguzkitsua.

Moderno. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Tolosa. Gazteentzako ezinhobea.

70 m². Egonela, sukaldea, 2 gela eta bainugela. Zaharberritua. 35.000.000

pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 90 m². Egonela, sukaldea,

3 logela eta 2 bainugela. Egoera ezin

hobea. Trastelekua. Garajea. 48.000.000

pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Eraiki berria. 3 logelako pisu

ederra. Trastelekua. Garajea. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Zizurkil. Pisu altua igogailuarekin. Bi

logela. Sartzeko. Trastelekua. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Zizurkil. Pisu polita. Eraiki berria. 3

logela. Kanpoaldera. Apartekoa.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Eskatera handiagatik: landa

lursailak, hirigintzakoak, pisuak, villak,

baserriak... Salgai edo alokairuan.

Etxesagasti. 943 69 68 56.



Hildako bat kamioi istripuan

IRURA ▶ Atzo arratsaldeko 13:30ak inguruan kamioi batek istripua izan zuen eta bere gidaria hil zen, N-1eko Irurako irteeran. Gidaria ukrainiarra zen; bere ondoan zihoan laguna, errumaniarra, zauririk gabe atera zen istriputik. Dirudienez, abiadura handian hartu zuen irteerako bihurgunea eta kamioia irauli egin zen. Argazkian, hildakoaren gorpua eta gidari-laguna Ertzaintzarekin hitz egiten kamioi irauliaren ondoan. I. GARCIA



106 urte bete ditu

IRURA ▶ Orain gutxi bete ditu Mari Paz Arreseigor irurarrak 106 urte —argazkian lotan dagoena—. Donostiako Zorroaga zaharren egoitzan dago bere ahizpa Pilarrekin —argazkian eskuinean, eserita—. Urtebetetzaren egunean, urtero legez, Irurako Udalaren bisita jaso zuen. Marimi Ugalde alkateak lore sorta eta herriari buruzko bideoa oparitu zion. Bisitan ere parte hartu zuen Jesus Mari Arsuaga xare egile irurarrak —argazkian, zutik, alkatearekin batera—. HITZA



Elkartasuna presoek

ADUNA ▶ Hilero azken ostiraletan egin ohi den bezala, Adunak elkarretaratzea egin zen euskal presoek elkartasuna adieraziz. Eguraldi txarrari aurre eginez, *Presoak borrokan, Adunak elkartasuna* leopon elkartu ziren. HITZA

XABIER ITURRIOZ ▶ APAIZA

«Denok ditugu gure baitan baloreak, baina gizarteko gatazkek zapaltzen dituzte»

Xabier Iturrioz apaiza Villabonan ari da gaur egun lanean; otsailaren 13tik aurrera Adunako parrokiaren ariko da



NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Xabier Iturrioz, 27 urteko alegi-tarra, apaiza da ogibidez. Sei urtez seminarioan aritu ondoren otsailaren 13an Adunako parrokiaren ardura hartuko du apaiz gazte honek. Bere burua kristau ontzat definitzen du eta oso zorionsua da bere bizimoduarekin. Egun Villabonan ari da lanean eta besteei laguntzea du helburu nagusia.

Nola erabaki zenuen ogibide hau aukeratzeko?

Beti esaten dut txikitatik ba-

tzuk futbolari izan nahi dutela dioten bezala nik apaiza izan nahi nuela. 5. mailan nengoela jada sortu zitzaidan grina, eta 8. mailan oraindik mantentzen nuenez, Grosen biltzen zen Gipuzkoako talde batekin bat egin nuen, hausnarketa egiteko. Bi urtez egon nintzen bertan. Behin Tolosako ikasketak amaituta seminarioan sartu nintzen.

Egun, ez da arrunta apaiz gazteak topatzea. Nola hartu zuten erabakia zure gertukonek?

Nire familia betidanik oso kristaua izan da eta erabakia oso ondo hartu zuen. Nire betiko lagunek, berriz, bazekiten txikitatik zer nahi nuen eta ez ziren batere harritu. Besteak harritu egiten dira, etorkizunik ez duela diote.

Zein da zure lana?

Eukaristiaz gain, bailarako sendotza taldean aritzen naiz eta katekesian laguntzen dut. Orokorrean, Jesusen baloreak transmititzen ditut.

Gaur egun kristautasuna galtzen ari da gizartean.

Denek ditugu barnean balore onak, baina zapalduak daude, gizarteko gatazkek direla eta. Gaur egun eukaristia gogaigarria dela pentsatzen dute gazteek.

Nola lor daiteke aurretik zegoen sinismena berpiztea?

Barnean dugun argia kanporatuz. Laiko asko dago apaizen lana gustura egingo lukeena; hala nola, ezkonduak, neskak, mojak... horrela agian lortuko genuke, hein batean. Izan ere, baloreak lantzen dira, baina elizaren markotik at.

Zer iritzi duzu elizaren jarreraren gainean?

Bakarrik erakusten da kanpoko markoa. Elizak politikoki indar handia du. Horretan askotan errua komunikabideek dute. Baina barruan talde potoloa dago baloreak lantzen, 3. adinekoei laguntzen, gazteekin...

Etokizunerako, zer plan?

Oraingoz Adunan geratuko naiz, bertan ikusten dut nire burua. Ez dut baztertzen kanpora joatearen ideia hemendik urte batzutura, batek daki!

ALEGIA ▶ AZPIEGITURAK

Herritarren iritzia jasoko da galdeketaren aurretik

Gaur arratsaldeko 20:30ean Parte-Hartze Batzordearen bilera izango da udaletxean

N. LATABURU

Egun gutxi barru herri galdeketa izango da San Joan kalea eta Bideberrieta kaleko biztanleen artean. Hori dela eta aurreko astean informazioa banatu zen herritarren artean. Bertan argi azaldu zen zein izango den bozkatzeko sistema eta zeintzuk diren aukeran jartzen diren bi proposamenak. Bozketa otsailaren 12an eta 13an izango da herriko plazan ezarriko den karpabatean.

Bigarren urratsari ekingo diote egun hauetan, iritziak biltzeari eta jendearen iritzi horiek zabaltzeari, hain zuzen ere. Antolatzaileek zenbait datu argitu nahi dituzte, dudak izan ez daitezten. Batetik, bozkatu ahal dutenen zerrenda zein den. Errolda hau argi

gera dadin, udaletxean San Joan kaleko eta Bideberrieta-ko herritarren zerrenda dago ikusgai. Bestetik, gai honen gaineko iritziak emateko aukera izango dute nahi dutenek, batzordeari adieraziz, sinatuta nahiz sinatu gabe. Iritzi hori bozkatu behar dutenen artean banatuko da. Azkenik, batzordeak gogorarazi nahi du bozketa egunak larunbata, otsailak 12, eta igandea, hilak 13, badira ere, aurreko eguneta utzi ahal dela botoa Udal bulegoetan, ostegunetan eta ostiralean bulego orduetan, denentzako aukera eskainiz.

Bozketa eguneko xehetasun guztiak finkatzeko, gaur Parte-Hartze Batzordearen bilera egingo da 20:30ean udaletxean. Galdeketa ere gaiaz gain, etxebizitzaren eta aurrekontuaren gaia ere tratatuko dira bertan.

ALEGIA ▶

Eskulan ikastaroa antolatu dute Kultur Etxean

Alegiako Kultur Etxean martxoan hasi eta maiatza bitartean iraungo duen eskularen tailerra antolatu dute. Ikastaroan izena emateko aukera otsailaren 15a bitarte izango da, Kultur Etxean bertan. Eskularen tailerren iraupena 22 orduakoa izango da, bi hilabeteetan zehar. Taldea adin guztientzat irekia egongo da, baina ikasle kopurua mugatua izango da, 10 eta 12 pertsona, hain zuzen ere. Izen-ematea 36 eurokoa izango da. Orduetgia eta irakasleak oraindik finkatzeko daude.

ALEGIA ▶

Txintzarri abesbatza Santa Agedari kantari

Santa Ageda bezpera eguneko kalera aterako dira Alegiako Txintzarri abesbatzako kideak, urteroko usadioari jarraituz. Aurtengoan Santa Ageda eguna Tolosako Inauterietan batera izango bada ere, Santa Agedaren inguruan egindako bertsoak kantatuz eskean ibiliko dira Txintzarri abesbatzako partaideak artzai-andre jantziekin, ostiralean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera herrian barrena, kaleak alaituz eta jendea ere Santa Ageda eguneko kantu ezagunekin bat egin dezaten.

iragarki laburrak ▶



Andoain. 75m²-ko etxebizitza kanpoaldera begira, igogailua, eguzkitsua.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza

salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berriak.

Donostia. Rodil zeharkalean, apartamentua salgai. Berriak; kanpoaldera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baseria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berriak.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berriak.

Tolosa. Zabalareta 135 m²-ko etxebizitza, trasteleku, garaje bikoitza aukeran.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, Iurre, Kale Nagusia, Larramendi...).



Giro ezin hobea Inauteri festan

BERASTEGI ▶ Herritarrek gogotsu hartu zuten parte larunbatean Inauteri inguruan prestatutako ekitaldietan eguraldi hotza eta elurra oraindik urtu gabe egon arren. Arratsaldean haurrak mozorrotu ziren eta dantza taldeak Lantzeko eta Altsasuko ihaute dantzak eskaini zituen. Ondoren txokolatada izan zuten Urepelen, Guraso Elkarteak antolatuta. Iluntzean, tabernaz taberna giroa jarri ondoren, helduagoek herri afaria izan zuten Maintzenea etxearen azpiko lokalean, Aldin kultur taldeak antolatuta. 90 lagun inguru bildu ziren mozorro, margo eta maskara artean. Jai giro apartaz gozatu ahal izan zuten goizaldera arte. Bildutako diruaren zati bat Aidanen aldizkaria laguntzeko izango da. HITZA

Hockey partidu «bizia eta azkarra»

IBARRA ▶ Larunbat arratsaldean patin gaineko hockey torneoa izan zen Belabieta kiroldegian eta festa «nahiko ongi» joan zela jakinarazi dute antolatzaileek. Uzturpe ikastolako taldeek parte hartu zuten Samaniego —alebinetan— eta Txuri-Urdinen —seniorretan— aurka. Alebinek erakusketa partidua egin zuten, «harrobiaren sendotasuna konfirmatuz». Seniorrek launa bukatu zuten partidua. Lehen zatia bukaeran markagailua 1-4 gelditu zen donostiarrentzat, baina bigarren zatian Uzturpekoek berdinketa lortu zuten. «Oso partida bizia, azkarra eta lehia handikoa» izan zuten, batez ere bigarren zatian. Bueltako partidua Inauteri ondoren izango da Donostian. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Urrezko hiru puntu lortu ditu Ibarrek, Sestaori 6-3 irabazita

Edozein talde irabazteko gai direla erakutsi dute ibartarrek; Xabi Blanch fitxaketa berriak debutatu zuen larunbatean

ERREDAKZIOA

Sestao sailkapeneko hirugarren postuan zegoen eta beldurra zioten, baina edozein talde irabazteko gai dela erakutsi zuen larunbatean Ibarrek. Xabi Blanch fitxaketa berriak debutatu zuen eta ondo aritu zen, batez ere futboleko lehen konpetizio partidua izanda.

Taldea oso kontzentratuta atera zen. Hirugarren minutuan markagailua inauguratu zuen, Hautsik korner bat errematatu. Pozak gutxi iraun zuen, minutu bat beranduago Sestaok berdinketa lortu zueneko laurtenetik datorrela eta areto futboleko lehen konpetizio partidua izanda.

korner baten ondoren. Dominatzen jarraitu zuten eta 11. minutuan Cristianek hirugarrena lortu zuen alboko sake bat errematatu. Aurkariek ezin zuten etxeko erasoak frenatu eta atsedenerako lau minutu falta zirela, Mikel Sanz atezainak luze atera zuen balaioa, Aierzak hartu, atzelaria aurreratu eta laugarren gola sartu zuen. 4-1 emaitzarekin iritsi zuten atsenaldira. Lehen zati ederra izan zen eta harmailetan baikortasuna nabari zen, baina erreserbekin, aurrean talde ona zegoela jakinda.

Bigarren zatian Sestao kan-txa osoan presionatzen atera zen eta etxekoak ustekabean harrapatu zituen, jokaldirik lotu gabe. Hirugarren minutuan bizkaitarrek abantaila txikitu zuten bigarren gola sartuz

eta handik bi minutura hirugarrena korner baten irteeran. 4-3arekin zalantza nagusitu zen harmailetan, baina taldea berrosatu eta Sestaoren dominioa berdindu zuen. Golik sartu gabe pasatzen zen denbora eta hiru minutu falta zirenean, Sestaok atezain jokalaria atera zuen, berdinketa lortzeko asmoz, baina ibartarrek emaitza ondo defenditu zuten. Minutu bat falta zela, Sanzek balaioa azkar eta luze atera eta Karrerak defentsa osatu gabe zegoela aprobetxatu zuen bosgarrena sartuz eta lasaitasuna ekarri. Segundo batzuk beranduago Cristianek baloi bat lapurtu eta seigarrena lortu zuen.

Lauburuko jubenilek 10-12 irabazi zuen bigarren zen Tomas Mingoten etxean, 6-2 gaitzen joan ondoren.

GAZTELU ▶ UDALA

Udalak Ostaturako ideia lehiaketa deitu du

Etxebizitza izan beharko du eta aldaketa arkitektonikorik ezingo dute egin

ERREDAKZIOA

Herriko ostatuari buruzko dekretu bat kaleratu du Gazteluko alkateak. Ideia lehiaketa deitu du Ostaturako proiektuak aurkezteko. Arkitektoen planoak ezezik, ustiapen modalitatea aholkatu (hotela, albergea, ea.) eta bidegarritasun ekonomikoaren azterketa azaldu beharko dute proiektuek. Etorkezinean Udalak egingo duen esleipen lehiaketarako baldintzen inguruko gogoeta, gomendio eta iradokizunak azaldu beharko dira azterketa hauetan.

Proiektuak lerro nagusi hauen barruan kokatu beharko dira: Udalak etxe barruan egun dituen ekipamenduak errespetatu; kale maila, taberna, jatetxe eta antzeko zerbitzu publikoetarako erabili; lehen solairuan ustiatzaileen-tzako —eta bere familia nuklearrarentzako— etxebizitza egin; ganbara logelatarako

erabili, irakoditzeko den modalitatean; eta kanpoari begira ahal den aldaketa arkitektoniko txikiena eragitea etxeari.

Proiektuak aurkeztu nahi dituztenek eraikinaren planoak udaletxean eskuratu ahal izango dituzte eta proiektuak martxoaren 4ko eguerdiko ordubiak baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Argibide eta informazio gehiagorako, udaletxera jo.

Inauterietako ordutegia

Asteburu honetan Gazteluko taberna irekita egongo da, beste asteburuetan bezala. Ordutegi hau izango du: ostiralean 19:00etatik itxi arte, larunbatean 10:30etik itxi arte eta igandean 10:30etik itxi arte. Erreserbak egiteko 943 67 18 40 edo 685 78 03 37 telefonoetara deitu daiteke. Inauterietan ondo pasatzea opa diete tabernako arduradunek herriarrei.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ateka beltzan gizarte zentrua egitea aterada 012ko inkestan

Galdetu eta iritzia eman duten herritarren % 36,65-ek, aukera horren aldeko jarrera agertu dutela dio txostenak



Ateka beltzan gizarte zentrua eginen lukete gehienek. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Ateka beltzan gizarte zentrua egitea aterada, 012-infolocal zerbitzuak Leitzako Udalarentzat egindako inkestaren emaitzen arabera. Lehengo ostiralean, ilbeltzak 28, egin zen batzarraren eman zituzten jakitera

datu hauek eta emaitzen txostena, herriko eragile politiko guztiei ez ezik, komunikabideei ere helerazi zieten atzokoan.

Horrela bada, «Ateka beltza etxea zertarako erabili beharko litzatekeen» galdera egin eta jasotako erantzunen %36,65-ek, gizarte zentroaren aukera

egin zuela ageri da txostenean, portzentaiarik altuena ateratu duen aukera bera izanik. Jarrera, eguneko zentroaren aldeko jarrera azaldu dute inkestaturako %27,95-ek; kultur etxea % 14,29-k aukeratu dute; eta gazte gunea % 11,80-ek; Hauetxek ziren zehazki gainera erantzuteko ematen ziren lau aukerak. Baina bestelako erantzunak ere jaso dituzte, ordea, musika eskola, osasun etxea, etxebizitzak egitearen aldekoak, besteak beste.

Inkesta egiterakoan erabili zuten prozedurari dagokionez, zoriz aukeraturako 300 telefono dei egin omen zituzten, ia-zoko urria eta azaroan, deia hartzen ez zutenei, eguneko une desberdinetan beste bi saiakera eginez. 97 dei hartu gabe gelditu zirela argitzen da txostenean. Telefonoa hartu zuten kasuetan, inkestaren nondik norakoak azaldu ondoren, galdera honi erantzunik eman nahi izan ez ziotenak 42 lagun izan omen ziren.

Inkestari adin tarte guztiatako herritarrek erantzun diote.

LEITZA ▶ KIROLA



Aurrerak oraingo, bigarren itzuliko partidu guztiak irabazi ditu. J. A.

Garaitezin jarraitzen dute aurreratarrek

Kanpoan 0-4eko emaitza argia eskuratuta, sailkapen taulan lidergoari eutsi egin diote

J. ASTIBIA

Beste behin ere irabazi egin zuen partidua Aurrera futbol taldeak. Ligako bigarren itzulia hasi bazen hasi, garaipenez garaipen dabiltz jokalariek eta ez gainera, alde tiikiarekin eskuratutakoak, oso emaitza nabarmenak baiterabiltzite azken bolada luze honetan: joko askorekin, gol askotakoak.

Taldea egiten ari den joko on horren eredu da igandean egin zuen partidua ere. Noaien jokatu zuen Union Latinaren aurka eta 0 eta 4-ko emaitza eskuratuta itzuli ziren etxerantz Aurrera futbol taldekoak, Azpirozek, Barberiak, Iker Bengoetxeak penaltiz, eta Gomezek sartutako golei esker.

Alde nabarmeneko emaitza izanagatik, taldeko zuzendari-tzatik Hitzari herenegun adierazi ziotenez, «emaitza are alde handiagokoa izan zitekeena lasai aski, izan ere gol-aukera askoz gehiago sortu zituzten gure mutilek, baina ez zuten sarera asmatzeko zortirik izan», zioten. Hala ere, emaitzarekin oso gustura ageri ziren, beste hiru puntu gehiagorekin, sailkapeneko lehendabiziko lekua gorde-

tzeko ziurtasuna ematen baitiete, eta batez ere, «inork minik hartu ez duelako», argitu nahi izan zuten. Nonbait oso itsuski jokatu zuten aurkariak, behin eta berriz oso sarrera txarrak eginez hanketara, lesioak eragiteko arriskua eraginez. Horren adierazle izan ziren, partiduko epaileak futbol zelaitik kanpora bidaltako bi joklariak eta gainera, bestalde ateratako beste lau txartel hori ere. «Oso intentzio txarrez egindako sarrera asko izan ziren. Askok sofitrua genuen jokorekin, haietako bat hurbiltzeak ere beldur piska bat ematen zigun gure jokalarientzat. Ez genuen minik hartzerik nahi eta ez zen berehalakoan bukatu partidua», adierazi zuten.

Kontuak kontu, emaitza onarekin itzuli ziren etxera Salazarren mutilak, lehendabiziko postu horri eusteko balia-bideak eskuan.

Hurrengo asteburuko partidua, hemeretzigarren jardunaldian egonik jada, etxean jokatu beharko dute Aurrerakoek, Huarteren aurka zehazki, Iruñeko Huartereko taldea bera. Partidua igande arratsaldean izanen da, 16:00etatik aurrera, eta Arxikil futbol zelaietan, noski.



Euskal preso politikoek ekimenari atxikiz

LEITZA ▶ Hilabeteko azken ostirala izanik lehengo ilbeltzaren 28a, Etxerat-ek deituta kontzentrazioa egin zuten. Euskal preso politikoek kolektiboak kartzelatan, hain zuzen

ere beren izaera politikoa eta elkarrizketa prozesuan eragile izateko duten eskubidea aldarrikatuz, daramaten borrokarri elkartasuna eta beren laguntza adierazi zieten. JAIONE ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxea. Alegiko Larraitz auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.

Tolosa. Pablo Gorosabelen taberna alokairuan edo salmentan. Ernio 943 655 037.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da goizez 5 orduz ebeko lanak egiteko. 669 21 33 37 telefono zenbakira deitu, 14:00etatik 21:00etara.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 2a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasete, Adura, Albitur, Alegi, Alkiza, Alzo, Amerieta, Anorta, Balaran, Bebitzeta, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itxaspeña, Itza, Larrain, Leizola, Lizartza, Oñena, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldea Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **10** hotzena **7**

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Santa Agedako entsegu 20:00etan udaletxean.

Ibarra. Udaltzarra 18:00etan udaletxean: aurrekontu orokorra, lanpostuak, EBPN...

Tolosa. Disko festa San Blas auzoan 18:30etik 21:30era. Emendek elkarteak antolatuta.

Tolosa. Pintxana txarangak gluzak behar ditu Ostegun Gizenerako. Atera behar ez duen baten batek baldin badu, taldekide bati eman diezaiola.

Tolosa. Udaltzaingoaren trafiko laguntzaileak hartu behar ditu Udalak Inauterietarako. 18 urte, Graduatu eskolarra, gaixotasunik ez izatea edo psikikorik ez izatea eta euskara jakitea eskatzen dute. Izen-ematea udaletxean.

Vilabona. Eresargi Abesbatza Santa Ageda bezpera prestatzeko entsegu egingo da Kultur Ebean 20:00etan. Denei irekia.

ZINE-KLUBA

Ibarra. *Tierra y libertad* Gaztebean 21:45ean.

Ardi latxa, nortasun irudi

TOLOSA ▶ Autorako ardi latxaren pegatinak jarri ditu salgai Tolosako gazte koadrila batek; «Euskal Herriko adierazgarri» izatea nahi dute

LEIRE MONTES

Atsedenarekin, lasaitasunarekin lotzen dute asendek elkarteak antolatuta. Geldoa, tristea eta aspergarria ere omen da batzuentzat. Baina badago ere ordu horiek ametsak marrazten jarraitzeko erabiltzen duenik. Hala, igande arratsalde batean, jai zuten autorako ardi latxaren pegatina.

Katalunian ikusitako astotoz katalanaren pegatina gustatu, eta Euskal Herriarako antzeko zerbait egitea bururatu zitzaion Tolosako gazte koadrila bati. Eta horrela, «lagun artean eta probatzeagatik», hasi ziren marrazki batzuk egiten. Konturaterako, dozenaka pegatina salduak zituzten.

Marrakzi berarekin, lau eredu egin zituzten: txuriz margotutakoa, beltzez margotutakoa, ertz txuria duena, eta ertz beltzekoa. Bakoitzatik 500 pegatina atera zituzten; 2.000 guztira. Eta, arrakasta ikusita, beste 3.000 gehiago egingo dituzte: «Ezuste harrapatu gaitu. Izandako erantzunaz gozatzen



Autoetan ikus daitezke jada ardi latxaren pegatinak. ARABO

ari gara, eta ekimena zer moduz doan ikusten; ardiak bezala, umil eta suabe. Baina serio hartu behar izan dugu: ondo antolatuta, marka erregistratu, jasotako diruarekin zer egingo dugun pentsatu...», azaldu diote HITZARI koadrilako kideek.

Ardi latxaren esanahia ere garbi utzi nahi dute gazte hauek: «Ez du lotura politikorik, Euskal Herriaren eta esu-

kal kulturaren adierazle gisa jai da».

Oraingoaz, Tolosako Mescal eta Eguzki tabernetan eta Iturri eta Uli kafetegietan daude salgai autorako pegatinak, euro batean. Laster Orbela tabernan ere izango dira. «Mauritanian, Katalunian eta Ryanair konpainiako hegazkinetan eta badaude», diote, irribarretsu eta harro. Eskualdera eta kanpora ere zabaldu nahi dute salmenta. Interesa duenak, gainera, eskaria egin dezake, posta elektronikoz: ardiatxa@euskalherria.org. «Interesa duenak horra idatzi besterik ez du. Gustura egingo diogu kasu».

Ekainera arte kontu batean sartuko dute bildutako dirua. Baina badute argi zer egin gero: «Euskara edo euskal kultura sustatzen duen jardueraren edo elkarteren bati eman-gio diruaren zati bat. Ardi latxaren pegatina gure nortasunaren adierazle delako».

ESANAHIA ▶

Autorako edo beste edozein tokitan jartzeko pegatinak salgai jarri dituzten lekuetarako ekimenaren nondik norakoak eta ardi latxaren esanahia azaltzeko honako testua prestatu du Tolosako gazte koadrila honek:

▶ Ardi latxaren pegatina Euskal Herriaren adierazle bezala jai da.

▶ Ardi latxa Euskal Herriko abere bereizgarriaren bat izanda, bere irudia hartzen dugu horixe adierazteko.

▶ Euskal Herria ezaugarri kultural bereziak eta antzekoak dituzten lurralde eta pertsonen izen bezala ulertzen da ardi latxa.

▶ Ardi latxa ez du, beraz, esanahi politikorik izan nahi; esanahi kultural baten adierazle besterik ez da.

▶ Euskal kulturaren adierazle izanda, bere salmentak emango dituen etekinak kontu korronte batean jaso eta bere portzentaje bat euskal kultura sustatzen edo bultzatzen duten ekintzei edo erakundeei zuzenduko die bultzatzaile taldeak.

▶ Ardi latxaren ikurra ez da inoren kontra edo inoren eskutik jai, ez da zezenaren aurka edo astoaren anaia bezala jai; eta, beraz, erabateko nortasun propioa du.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, agurrak... argitaratzeko etorri HITZAREN egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Leire Erbiti Goienetxe (Leitza).
Gaur 5 urte. Zorionak eta muuu handi bat bere guraso eta ahizpen partetik.



URTE ASKOAN

Joxepa Artola (Lizartza).
Zorionak birloben partetik: Alaitz, Eñaut eta Izaro.



AUPA OSKAR

Joan Zallez pailazaren mozorroa prestatzen
Ihauterietara gazte zeta. Laster egingo gara. Eutsi goian. Animo. Karlos, Bionte eta Luis.



ANIMO AGURRA

Oskar Zelarain.
Alegiako zure lagunak. Jo ta ke irabazi arte!



Inauterietako egitaraua
Inauterietako argazki bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,
gure web orrian azalduko dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



www.tolosaldeko-hitza.info